

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Belateko obrek eragindako errepideetako zirkulazioa erregulatzeko neurriak tunelak hobetzeko lanak amaitu arte luzatuko dira

N-121-A kasuan, trafikoa 63.750 puntu kilometrikoan etengo da, Berako zerbitzuguneetarako sarrera errazteko

Asteazkena, 2018.eko uztailak 4

Pasa den ekainaren 4an obrak hasi zirenetik, ibilgailu astunen murrizketak aplikatzen ari dira [Belateko tuneletan](#), eta horiek aplikatzen jarraituko da tunelak hobetzeko obrak amaitu arte. Horrela adierazi du gaur Ekonomia Garapeneko lehendakariorde Manu Ayerdik, Gobernu bileraren prentsaurrekoaren ondoren. Berrikuntza moduan, aurreratu du iragaitzako ibilgailu astunen mozketan, N-121-A errepidearen iparraldean, uztailaren 16tik aurrera aldatu egingo dutela 63+750 puntu kilometrikora (gaur egun, 66+000 pk-an moztzen da), eta, era horretan, Berako herriko zerbitzuguneetarako sarrera erraztuko dutela.

Nafarroako eta Estatuko aldizkari ofizialetan argitaratuko da datozen egunetan, [trafikoa arautzeko neurrien](#) luzapena jasotzen duen Foru Agindua, hasiera batean indarrean zena uztailaren 15era bitarte. Erabaki hori onartu da Segimendu Batzordeak pasa den ostiralean, ekainaren 29an, egindako bileran inplikaturiko sektore guztiek agertutako iritziak entzun ondoren.

Manu Ayerdi lehendakariordeak ondorengo azaldu du: “jardueren pakete osoak ondo funtzionatu duenez, egokiena murrizketekin jarraitzea dela pentsatu dugu”. Gainera, murrizketen lehen lau astetan “garraiolarien sektoreak erakutsitako profesionaltasun handia” bereziki eskertu du.

Belaten lanak ekainaren 4az geroztik garatzen ari dira, eta 5 milioi euro inguruko aurrekontua dute. Horien helburua da tunelak segurtasunari buruzko Europako araudira egokitzea, Europa barneko sarean 500 metrotik gorako tunel guztien kasuan aplikatu behar baita. Egokitze-lanak 2019ko maiatza baino lehen egin behar dira, [Europako 2004ko zuzentarauari](#) jarraiki. Obrak azarorako amaitzea aurreikusten da.